

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udalak 35 lanpostu betetzeko Lan Eskaintza Publikoa onartu du

2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan txanda irekiko 30 plaza eta barne igoerako 5 plaza sartzen dira

Tokiko Gobernu Batzordeak 2020 urteko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu du. Horren barruan langile funtzionarioen plantillako lanpostu hutsak, sarrera berriko eta barne sustapeneko langileentzat sartzen dira .

Txanda irekiko 30 plazak 21 administrari, 6 udaltzain eta 3 euskara teknikari dira. Lanpostu horiez gain, barne sustapeneko 5 plaza daude, Udaleko langileek beren karrera profesionala garatu ahal dezaten.

Gainera, litekeena da lanpostu kopuru hori handitzea deialdien azken kalifikazioak argitaratu aurretik lanpostu huts gehiago sortzen badira, betiere ezarritako legeko mugaren barruan.

Prozeduretan sartzeko baldintzak prozedura bakoitzaren oinarrietan zehaztuko dira, baina, besteak beste, euskararen titulazioari eta hizkuntza-eskakizunari (lanpostu bakoitzaren arabera) egingo diete erreferentzia.

Izen-emateak Udalaren web orriko (www.donostia.eus) enplegu atarian eta udaletxean bertan egin daitezke. Gainera, abian jartzen diren hautaketa-prozesuen abisuak jasotzeko aukera dago, zerbitzu horretan alta emanez web orrian bertan.

Nabarmendu behar da hautapen prozesua gainditu eta lanposturik lortzen ez duten izangaiak ordezkapen zerrenda batean sartuko direla, lanpostu hutsak betetzeko edo aldi baterako beharrak betetzeko. Lan-poltsa horiek beste administrazio publiko batzuei ere uzten zaizkie, langileak kontratatu behar dituztenerako.

Hori dela eta, lanpostu horietara aurkeztea aukera oso ona da enplegatu publiko gisa lan egin nahi duten pertsonentzat; izan ere, lanpostua lortu ez arren, lan-poltsa horietan daudenez, Udalean edo beste administrazio publiko batzuetan lan egiteko aukera dute.

2017az geroztik, orain arte, hainbat lan-eskaintza onartu dira, eta, azken hori onartzearekin batera, lanpostu huts asko gehitu dira. Horrela, orain arte 63 administrari, 35 erdi mailako teknikari eta 30 goi mailako teknikari lanpostu metatu dira.

Amara kaleko birralojatzea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Amara kaleko 11., 13. eta 17. zenbakietan dauden udal-titulartasuneko etxebizitzak okupatzeko sinatutako kontratuak bukatutzat eta iraungitzat ematea, bi aldeek hala erabakita, eta bizilagunei aldi baterako bizileku ematea.

30 etxebizitza eraiki ziren Udaltzaingoaren etxebizitzetarako, eta gaur egun egiturazko patologia larriak dituzte. Ondorioz, erortzeko zorian daude, eta horrek arriskuan jartzen du bertako bizilagunen segurtasuna, baita inguruan ibiltzen diren pertsonena ere.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Egoera hori dela eta, bizilagun guztiak atera behar direla erabaki da. Hala, 2020ko uztailaren 7an, Tokiko Gobernu Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin 20 etxebizitza aldi baterako lagatzeko kontratua sinatzea onartu zuen, Amara kaleko etxebizitzetan dauden familien bizileku iragankorra izateko.

Udalak kaltetuei beste toki batean bizitzen utziko diela bermatzen die, hil arte edo, hala badagokio, etxebizitza behar ez den arte. Horiek Udalarari ordainduko diote Amara kaleko etxebizitzetan bizitzeagatik orain arte ordaindu duten kopuru bera, eta zerbitzu eta horniduretan alta emateko gastuei eta etxebizitzek izan ditzaketen komunitate-gastuei aurre egin beharko diete. Bestetik, Udalak 500 euroko konpentsazioa emango die bizilagunei, eta 4.500 euroko gastua izango du guztira.

Papin industrialdea

Tokiko Gobernu Batzordeak hasierako onarpena eman dio Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko aldaketa puntualari, Papin eremuari dagokiona. Eremu horretan indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea da helburu nagusia, egungo industria-garapenak sendotuz. Beraz, eremuko lur guztiak industriarako eremu global batean sartuko dira. Gainera, eremua birgaitu nahi da, espazio libre publikoak handituz eta urbanizazioa hobetuz. Era berean, Molinao erreka zerura irekiko da, eremuaren zatian.

The English School

Tokiko Gobernu Batzordeak hasierako onarpena eman dio Baratzategi hirigintza esparruko Hiri Antolamendurako Plan Bereziari, The English School lurzatiari dagokiona.

Esparrua udal titulartasuneko lurzati bati dagokio eta haren erabilera pribatiboa The English School ikastetxeari eman zaio. Planaren xedea da jatorrizko finkaren lurzattia banantzea eta antolamendu xehatua ezartzea, ikastetxe bat eraiki ahal izateko.

Xehetasun azterketa: Zubieta XXI eta Mundaiz ikastetxea

Tokiko Gobernu Batzordeak hasierako onarpena eman dio Gorabide eraikina handitzeko xehetasun azterketari, Realak Zubieta XXI eraikinean dituen kirol instalazioak handitzeko, Katanbide hirigintza esparruan. Jarduketa honi esker, Zubietako instalazioak amaitu ahal izango dira, Realak bere prestakuntza arloan jardun ahal izan dezan.

Halaber, Tokiko Gobernu Batzordeak hasierako onarpena eman dio Mundaiz (Egia) hirigintza esparrurako xehetasun azterketari. Ikastetxeak gaur egungo kirol beharretara egokitutako diziplina anitzeko kiroldegi estalia eraiki behar duelako sortu da jarduera hau. Era berean, aisialdirako gune estalia behar du, eta dauden eraikinen eta etorkizuneko kirol instalazioaren arteko loturak eta irisgarritasuna konpondu behar ditu.

Prensa oharra

Nota de prensa

Idiakez, 6 eraberritzea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Ayelis SL enpresak eskatutako lizentzia ematea, Idiakez kaleko 6. zenbakian (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren garai bateko egoitza) dagoen eraikinaren zati bat eraberritzeko. Erreformak 29 etxebizitza eraikitzea ahalbidetuko du eta bi urteko epean egin beharko da.

Ekialdeko barrutia

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du Ekialdeko Barrutiko Udal Batzarreko kide izendatzea auzo-elkarteen bosgarren ordezkaria eta gainerako erakundeen bosgarren ordezkaria, lehenbizi hautetsiak izan ez ziren auzo-elkarte eta erakunde sektorialekin osatutako zerrendan daudenak, baita haien ordezkakoak ere.

Izendapen hauek aprobatutako Ekialdeko Barrutiaren ordezkarien, handizteari dagokiko, bai politikoak eta bai sozialak. Horrela, Barrutiko Batzordera 4 kide gehituko dira (2 politika arlotik eta 2 arlo sozialetik), eta 15 ordezkari izatetik 19 izatera pasako da.

Beraz, Juan Luis Apalategi Erbiti, Osteguna Larratxoren izenean, auzo elkarten ordezkaria izango da, eta Ana Beatriz Molina Hipólito, Mestiza elkarte artistiko-soziokulturalaren ordezkari, gainerako entitateen ordezkaria.

Galtzadak konpontzea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du 2020ko galtzadako zoladura konpontzeko obren proiektua. Proiektuak 299.810 euroko aurrekontua du eta 11 asteko epean gauzatzea aurreikusten da.

Zati batean edo osorik konpontzeko lanak 14 kale, pasealeku edo hiribidetan egingo dira. Horiek galtzadaren zoladura hondatuta dute, edo zulo, arraildura edo urradura ugari dituzte, eta, ondorioz, berehala konpondu behar dira.

Hipodromoa

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du, bi aldeak ados jarrita, Donostiako Hipodromoa Euskadiko Hipodromoak eta Apustu Hipikoak S.A.U. enpresaren aldeko erabilera pribatiborako administrazio-emakida 2020ko azaroaren 1etik 2021eko urriaren 31 arte luzatzea, egungo 34.076 euroko kanonarekin.